

# Aretxaga

FELIS BELTRAN DE HEREDIA  
ANDRA MARI 07 - 2 EZK  
ARETXABALETA

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1999ko irailak 23 • 175. zka.



San Migel

baserritar jantzita dator





- ✓ Gidatzeko baimen guztiak jaso ditzakezun eskola
- ✓ Klase teorikoetara bereziki zuzenduriko maixua
- ✓ Zure ordutegira egokitzen gara



Informa zaitez:  
Bulego ordutegia:  
goizez 10etatik ordu 1etara  
arratsaldez 4etatik 8etara

Basabe Poligonoa F-0-7  
Tfnoa: 943 79 64 50  
**ARETXABAETA**

## KIROLA, NOR BERE BURUAREKIN GUSTURA SENTITZEKO TERAPIA EDERRENA

- Ordutegi zabala.
- Lehen mailako monitorea.
- Azterketa medikoak, matrikularen barne.
- Talde mugatuak.
- Eskaintza motak: Yoga, aerobica, body sculpting, aretoko dantzak, power dumbell (muskulazioa).
- Lurrin bainuak, doan.

**BAKARRIK EMAKUMEZKOENTZAT!!**

Gainera, gimnasioko bazkideek beherapenak dituzte punta-puntako **estetika zentru mistoaren** hainbat zerbitzutan.

### ESTETIKA ZERBITZUAK:

- Behin betiko depilazioa.
- Gorputz eta aurpegi tratamenduak.
- Makilaje iraunkorra.
- Mediku estetizista:
  - Dietak
  - Barizeak
  - Mesoterapia (Zelulitiaren aurkakoa)
  - Liposaketak.

Irailerako eta urrirako eskaintza:  
Zutikako eta etzandako  
solariuma (dutxarekin).

LEHEN: 10 SAIO + 1 = ~~9.000~~ pta.

ORAIN: 10 SAIO + 1 = 8.100 pta.

  
**LIRAIN**  
ESTETIKA-ZENTRUA  
EMAKUME-GIMNASIOA  
Bixente Ferrer kalea • ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 17




# Zer nahiago duzu, Andramaixak ala San Migelak?

## San Migeletan zein ekintzatan hartzen duzu parte?

### Ekain Agirre

(Langilea)

San Migelak nahiago ditut. Andramaixen aldean giroa politagoa da: jendea baserritar jantzita, taloa, sagardoa... Gainontzeko jaietatik ezberdinak dira aspaldiko ohiturak dituelako oinarrian. Herri bazkarira joaten naiz eta asto karreretan aritu nintzen iaz.



### Aintzane Izurrategi

(Ikaslea)

San Migelak gehiago gustatzen zaizkit jende gehiago egoten delako eta giroa politagoa delako. Ni baserritar janzten naiz eta herri bazkarian eta arratsaldeko dantza saioan hartzen dut parte.



### Javier Alvarez

(Langilea)

San Migelak nahiago ditut, batez ere, Andramaixak oporretan izaten direlako eta ez naizelako hemen egoten. San Migeleki dago-kenez, ez dut inongo ekintzatan parte hartzen. Kanean ibiltzen naiz, azoka ikusten eta ezer gutxi.



### Manoli Fuertes

(Etxekoandrea)

San Migelak nahiago ditut, Andramaixetan normalean oporretan, herritik kanpo egoten baina. Azoka ikustera urtero joaten naiz eta erosketatxo batzuk ere egiten ditut. Oso giro polita izaten da herrian.




Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultura sailak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria

## Espaloiak oinezkoentzat dira, ez kotxea aparkatzeko

Arazoa ez da berria, baina ditzosozko kolektore lanak direla eta larritu egin dela uste dut. Herrian gero eta kotxe gehiago dago eta gero eta aparkaleku gutxiago. Aparkaleku falta honen aurrean kotxe gidariak azera gainetan, oinezkoei dagozkien lekuetan, uzten hasi dira. Batek baino gehiagok pentsatuko du azera gainean kotxe bat aparkatuta egon arren oinezko bat pasa daitekeela, bai egia da, baina ume kotxe bateaz joanez gero ez.

Aurten ume kotxe bateaz ibiltzea tokatu zait eta batzuetan benetan zaila da nondik pasatu asmatzea. Eroski inguruan, Udaletxe parean, Loramendi aldeko hainbat kaletan eta beste horrenbeste lekutan benetako zailtasunak ditugu beti dagoelako kotxe bat, bi edo hiru azera gainean. Beraz, gidariei, kotxea dagokien lekuan uzteko eskatuko nieke, bestela ere nahiko zailtasun baitugu hainbat kaletan ibiltzeko. Ni ez naiz isunen aldekoa,

baina errespetatzen gaitzaten beste biderik ez badago, udaltzainei ere zerbait egin dezaten eskatuko nieke. Argi dago arazoa ez dela gutxiagora joango, eta aurrera begira, beste era bateko neurriak hartu beharrean izango gara.

M.M.A.  
ENA, 18.591.178

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi elkarteak. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943 79 86 21 Faxa: 943 77 18 54. **Erredakzio-kontseilua:** Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe, Arantza Antxia, Bego Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Monika Belastegi eta Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia.

**Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk.

**Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609.

**Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxagazeta





# Abarkak eta baserritar jantziak nagusi larunbatean

San Migelak gainean ditugu dagoeneko. Bihar, ostirala, hasi eta igandera bitartean jai giroan murgilduko gara eta makina bat gauza izango ditugu ikusteko.

Txupinazoa ostiralean izango da, arratsaldeko 18:00etan, eta ondoren erraldoi, buruhandi eta akordeoi orkestrako txarangak kalejira alaia eskainiko dute Loramendi Euskara Elkarteak antolatuta. Gauean, Tirri Tarrara, Pasai San Pedroko fanfarreak, musikaz gain umore eta ikuskizun paregabea eskainiko ditu plazan 22:30ean.

## 25 artisauen lanak ikusgai ferian

Larunbatari dagokionez, eta urteroko ohiturari jarraituz, goizeko 11:00etan hasi eta arratseko 20:00ak bitartean Artisau Feria eta V. Produktu Biologikoen Feria ikusi ahal izango dira herriko plazan.

*Larunbateko artisau ferian hogeita bost postu izango dira. Postuez gain, hala ere, artisau bakoitzak, dagokion lanbidearen erakustaldia egingo du bakoitzak ferian dirauen bitartean*

tzi eta baserri maketagileak, lapikogileak, zilargileak, larrugileak, keramikagileak, pilotagileak, beiragileak, eta alpargatagileak izango dira beste batzuren artean.

Horrez guztiaz gain, eta baita larunbatean ere, Patxaran lehiaketa egingo da udal-etxean, "Altsasuko momorrotxoak" ka-



*Larunbat arratsaldean, herri bazkari eta asto karreraren ostean, 19:00etan, Beinke-Loramendi dantza egiteko ordua iritsiko da, urtetik urtera jende gehiago biltzen duena*

## Beinke-Loramendi dantza

San Migelek larunbatean ekarriko diguten beste ekitaldietako bat herri bazkaria izango da eta osteko asto karrera Durana kalean. Karre- eta gero, ohiturari lehialki eutsiz, Beinke-Loramendi dantza eskainiko da plazan, urtetik urtera dantzari gehiago erakartzen dituen dantza.

Azkenik, eta dagoeneko igandera iritsiz, gazte mailako XIX. San Migel Txirrindulari lasterketa egongo da eta ondoren, Goenatxok, Mikel Saralegik, Dani Vicentek, Itziar Goenagak eta Kristina Saralegik beste herri kirol batzuren artean enbor mozketak eta harrijasotze erakustaldia egingo dute Herriko plazan.



Aurtengo artisau azokan, 25 postu izango dira. Postu hauen artean, okinak, euskal pastelgileak, bisuteriagileak, egurrez egindako itsason-

leetan zehar arituko dira eta perretxiko erakusketa egongo da Euskal Txokoan. Bien bitartean, talo eta sagardo postuak ere izango dira.



**Zubia**  
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABAETA  
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

**IRIARTE**



Umeen denda

Durana, 8 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 10 96



## Presoen aldeko kontzentrazioa



Datorren larunbatean, San Migeletako jai giroan murgilduta gaudela, Euskal Presoak Euskal Herriratzeko asmoz kontzentrazioa izango da herriko plazan arratsaldeko 20:30etik 21:00etara bitartean, Larrin dantzaren ostean.

Aretxabaletako Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak herritar guztiei luzatzen die kontzentrazio deialdi hau. Kontzentrazio bitartean, herriko bertsolari batzuk presoen aldeko bertsoak eskainiko dituzte.



### Artzain txakurra aurkitu da

Orain bi hilabete inguru Aritz Be-diak artzain txakur bat aurkitu zuen. Txakurra Aritzi etxera joan zitzaion. Ordutik etxean du eta oporrak ere berarekin igaro ditu Almerian. Aritzek, hala ere, ezin du txakurra zaindu eta jabearen bila ari da. Artzain txakurra da, gaztea eta ondo zaindua. Inork ezagutuko balu edota berarekin gelditu nahi honako telefonora dei dezake eta Aritzen-gatik galdetu: 943 77 00 62.



### Kontzentrazio jendetsua udaletxe parean

Herritar ugari bildu zen pasa den ostiralean udaletxe parean euskal presoen eskubideen alde eta bake prozesuan laguntzeko egindako hamar minutuko kontzentrazioan. Berau, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak egindako dei instituzionalaren erantzuna izan zen. Deia, Gipuzkoako udaletxe guztiei eta Gipuzkoako Foru Aldundiari luzatu zitzaion, estatu espainiarreko gobernuak euskal presoek jasaten duten egoeraz egiten duen erabilpen politikoa salatuz asmoz.



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15

☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28

Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

ESKORIATZA

Tfno 714345



Bazkari  
eta  
afariak

MENDIOLA

Astelehenetan itxita

ESKORIATZA



**LASAGABASTER-en**

**AUKERARIK ONENA**

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



# Ehundaka haurrek dantzaz josi zuten herria domekan



Haur Dantzarien Egunak haur eta laguntzaile artean, 450 lagun inguru bildu zituen pasa den igandean. Eskoriatzako Gorosarri taldea, Arrasateko Txikitxu eta Lore Gazteak, Bergarako Xamatx, Antzuolako Oiñarín, Oñatiko Oinatz eta Soralezeko taldeak izan genituen herrian bertako Loramendi taldeaz gain.


Haur guztiak plazan elkartu ziren goizeko 11:00etan. Hamaketakoa egin ostean, talde guztiak hiru multzotan banatu eta Herriko plazan, Urbaltzeko plazan eta Azoka plazan hainbat dantza eskaini zituzten. Ostean haur guztiak 13:30ean bildu eta bazkaltzera joan ziren.

Arratsaldean iritsi zen ekitaldi nagusia, alardea hain zuzen ere. Arratsaldeko 17:00etan eman zitzaion hasiera alardeari eta bertan talde bakoitzak bakarka zein aldi berean hainbat dantza eskaini zituzten.

Goiz eta eguerdi partean eguraldiak lagundu bazuen ere, arratsaldean alarde bitartean euria hasi zuen, baina hau ez zen umeak dantzan jarraitzeko eragozpena izan.

Alardearen ostean, ume guztiak bildu eta talde bakoitzak bere herrira abiatu zen.

Laster  
Zuekin




## ILEAPAINDEGIAN:

- Azken modako mozketak
- Tintek
- Ile osasuntsuarentzako aholkuak

## ESTETIKAN:

- Aurpegiaren garbiketak
- Aurpegiko tratamenduak
- Depilazioa
- Solariuma



ILEAPAINDEGI  
ESTETIKA

LORAMENDI, 10  
TEL: 943 77 01 26  
20550 ARETXABALETA





## Drogomenpeketasun prebentzioa

Drogomenpeketasun Prebentzio programa eraman da aurrera Aretxabaletako institutu eta Almen ikastolan pasa den ikasturtean.

Programa hau lau sustantziatan oinarritu da: alkohola, tabakoa, haxixa eta estasisa; legalak lehenengo biak eta ilegalak beste biak.

Prebentzio programa honetan Aretxabaletako institutuko FP-1, elektromekanikako 1. maila, erizaintza, soldadura eta galdaragintza kurtsoetako ikasleek hartu dute parte, eta Almen ikastolari dagokionez, DBHkoek eta Goi Batxilergokoek.

Behin programa bukatu ostean honako hiru emaitza nagusi aipatu daitezke: batetik, inkestatutako gazteek gustatzen zaizkielako hartzen dituztela arestian aipatutako lau sustantziak, asteburuetan batez ere. Bestetik, gehiegizko kontsumoak eraginik nabariena osasunean duela ulertzen dute, lau sustantzien artean kaltegarriena estasisa, eta kalte gutxien eragiten duena tabakoa. Azkenik, "drogak

txarrak direla" eta "drogek hiltzen dutela" esaten dute.

Prebentzio programa hau aurrera eramateko erabili den metodologia pretest eta postest inkestetan oinarritu da; hau da, inkesta bat pasatu zaie ikasleei eta bertatik ateratako datuen arabera formazioa eman. Formazio epearen ostean, lehenengo inkesta erantzundako ikasle berberei inkesta bera pasatu zaie, helburua, bi inkesten artean egon litezkeen aldaketak izanik.

Inkesta batetik besterako epealdian, kontsumoak gora egin du, hala ere, kontuan hartu behar da, postest inkesta pasatu aurretik inguruan jaiak zirela, eta hau aukera oso aproposa izaten dela bai lehenengo aldiz drogak hartzen hasteko baita hartzen dituztenek ere horretan jarraitzeko.

Dena den, programaren helburua ez da kontsumoa jaitea izan, ikasleak sustantzia hauen inguruan informazioa baizik, eta hasi berri dugun ikasturtean jarraipena izango du programak.

## Andra Mari parrokia Caracaseko gazteak laguntzen

Andra Mari Parrokiak, Venezuelako Caracas hiriko gazteenei laguntzeko asmoz dirulaguntza eskaria egin du Eusko Jaurlaritzako kooperazio eta garapenerako fondoko departamentuan. Dirulaguntza hau, "Huellas" proiektua aurrera eramateko da, hau da, Caracaseko Moron, Barlovento eta Junquito zonalde marginatuetako gazteei zuzendutako ekintza soziokulturalerako laguntza eskaintzeko hain zuzen ere. Zonalde hauek aurrikusitako beharrak, marginatuendako etxe-tailerra, droga prebentzioa eta eskola kanpoko ekintzak egin ahal izateko guneak dira beste batzuren artean. Aretxabaletako parrokiak, "Huellas" proiektuko arduradunen eta Eusko Jaurlaritzaren artean bitartekari lana egiten ari da, eta dagoeneko jaso ditu Eusko Jaurlaritzatik lau milioi eta erdi pezeta. Proiektuak orotara hemeretzi milioiko aurrekontua du.

## Jubilatuen Eguneko bazkarirako txartelak

Salgai daude dagoeneko Basotxon. Interesatuak astelehenetik ostiralera bitartean pasa daitezke 11:30etatik 12:30era.

### IBARRA



Tabakoa eta ikasmateriala

### ESTANKOAK

Bizkaia, 3 Tfnoa: 943 79 23 77

### REGIO

### optika

Loramendi, 10  
☎ 943 79 98 21



### ANDRA MARI

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 943 79 29 26

Izozkiteki-Gozotegia

### IZOZKITEGI

Otalora, 11  
Tfnoa: 943 79 93 58  
ARETXABALETA



## Mitarteko zanga San Migeletarako estali egingo da

San Migel jaietarako estalita egongo da Mitarte kalean kolektoreko lanak direla eta azken bi astetan ireki duten zanga, nahiz eta ez asfaltatua. Hori da, deberen, pasa den astean kolektoreko lanez arduratzen den enpresak Udalarekin hartutako konpromezua.

Konpromezu honen arabera, enpresa eraikitzaileak, zanga estali eta lanerako erabiltzen duen makinaria guztia eraman egingo du kalea libre uzteko asmoz.

Honek ez du esan nahi, hala ere, lanak amaitutzat eman beha direnik. Izan ere, orain dagoen zanga estali arren, jaien ostean, hau da as-

telehenetik aurrera, Mitarte kaleko lanek jarraitu egingo dute eta orain estaliko den puntutik aurrera zangak jarraitu egingo du kolektoreko lanak amaitu artean.

Mitarte kaleko lanak, kolektorearen adar osagarri bat dira eta beste hiru gehiago daude eraikitzeaz, Solohandi, Lausita eta Otorora kaletan.

Honekin guztiarekin, Deba Garaiko ur zikinak jasoko dituen kolektoreko lanak Aretxabaletari dagokionez, abendurako amaituta egongo



### Mendigoizale asko Kurtzebarrira

Giro ederra izan zen Kurtzebarri Egunean. Jende ugari igo zen mendira, eta eguraldia ere nahikoa ondo portatu zen, goiz eta eguerdi partean bederen lagundu baitzuen, nahiz eta arratsaldean haizeak jaso zuen. Urtero bezala, goizean meza izan zen 11:30ean eta ostean salda eta txanpana izan ziren hurbildutako guztientzat.

#### Gure tailerrean eginak:

- Korseak eta aparailu zuzentzaileak.
- Hankentzako plantila bigunak: planobalgoak, kabo eta mingarriak.
- Deskarga plantilak kirolarientzat.

### ORTOPEDIA ORTO LAGUN

**Ortopedia teknikoko zerbitzua eskaintzen dizugu**

Kontzezino 2 • ARRASATE •  
Tfnoa: 943 79 89 34

#### Bazar sailean:

- Belaunetakoak, orkatila-babeslea, eskuturrekoak.
- Lanerako suekoak.
- Lunbago eta ziatika arazoentzako **neopreno**zko fajak, eta elastiko eroasoak.
- Gurpildun aulkiak, aluminiozkoak, arinak,
- elektrikoak eta tolesgarriak.
- Ohe artikulatuak, gaixoak eramateko gruak, komundun aulkia, eskaren aurkako aire eta urezko koltxoiak.
- Neurria egindako bularretakoak.
- Alemaniatik ekarritako zapatak.

## ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43



# Jose Lonbide

## Produktu biologikoen goraipaille


Denbora darama Jose Lonbidek San Migeletako ferian bere ortuko produktuak erakusten. Ermuan du baratza eta udaletxeko lanak uzten dion aisialdian hurbiltzen da bertara. Datorren asteburuan ospatuko diren San Migeletako azokan ere erakutsiko ditu bere baratzeako barazki eta fruituak .

**-Non duzu baratza eta zer bertan landuta?**

-Ortua Ermuan dut, hektarea batekoa, eta orain hamairu edo hamalau urte hartu nuen eta bertan denetarik daukat landuta. Hainbat barazki mota, tomate, aza, letxua, porru... eta baita fruitu arbolak ere, mada-riondo, gerizondo...denetarik pixka bat. Aurten adibidez geriza asko izan dut. Franbuesak ere asko ditut. Badira, hala ere, landu ez ditudan fruituak, melokotoiak adibidez, gaisotzeko arrisku handia dutelako, lepraren antzerako gaitz batek jotzeko arriskua hain zuzen. Azken batean zuhaitzak pertsonen oso antzekoak dira eta gu bezala gaisotu egin daitezke.

**- Datorren asteburuan San Migeletako azoka izango da eta bertan zure ortuko produktuekin postua jarri izan duzu. Zer ikusi ahal izango dugu aurten postu horretan?**

- Gauden garaiko fruitu eta barazkiak eta baita franbuesazko marmelada ere. Barazkien artean, tomateak, lekak, hainbat eratako piperrak, tipulak, berakatzak, zarbak, azak... izango ditut, eta fruituei dagokionez, sagarrak, franbuesak, mizpirak... Guztia biologikoa eta tranparik gabekoa. Izan ere, Gipuzkoako Biolur Elkartearen barruan nago, eta sei hilabete behin Euskal Herriko produktu Biologikoen



**“Era natural batean  
hazitako ortuko  
gaiak gainontzekoak  
baino onuragarri-  
agoak dira  
osasunerako”**

Federakundeak sei hilabete behin kontrol bat pasarazten dizkie bakoitzaren produktuei. Norberaren ortura etortzen dira eta beraiei egoki iruditzen zaien zerbait eramaten dute aztertzeko. Honegatik diot berrtan produktu naturalak direla, tranparik gabekoak.

Honez guztiaz gain, perretxikoak ere eramango ditut, euria egin eta

ateratzen badira behintzat ordurako. Asko gustatzen zait, gainera, perretxikotan joatea, jatea baino gehiago nik uste.

**- Saririk atera izan duzu inoiz?**

-Bai, behin baino gehiagotan bigarren eta hirugarren sariak lortu izan ditut. Iazko azokan adibidez hirugarren geratu nintzen. Lehen baina horretan baino ez nintzen aritzen eta denbora gehiago nuen ortuari eskaintzeko, orain udaletxeko langilea naiz eta gutxiago dut.

**- Nola moldatzen zara Udaletxean lan egin eta ortua zaintzeko?**

-Gehien bat asteburuetan joaten naiz baratzerara, eta orain oporraldian ere nahikoa denbora izan dut. Asteburuetan joatearekin nahikoa izaten dut, ez da komenigarria egunero-egunero lurra zapaltzen aritzea askok egiten duten bezala.

**-Kurtzebarri eskolako umeei ere ikastaroren bat ematen diezu.**

- Bai, astean behin Basaben duten ortu batera joaten gara eta hantxe ortua nola maneiatzen den erakusten diet. Oso lan polita da ortukoa eta irtenbide bat gehiago.

**- Zertan ezberdintzen dira produktu biologikoak horrela kontsideratuta ez daudenetatik?**

- Era natural batean hazita dagoen fruitu edo barazki bat dastatzea besterik ez dago ezberdintasunaz jabetzeko. Zaporea mila aldiz hobe da, osasunarentzat ere onuragarriagoa dela ahaztu gabe.

Azken batean, era natural batean hazitako ortuko gaiak ez dute in-tsektizida eta antzerako gai toxikoekin inongo harremanik izan, eta ondorioz, gizakion osasunerako kaltegarri izan daitezkeen gai horietatik salbu daude.





## Barianteko gorabeherak

“Bariantea

konpontzeko ardura

Foru Aldundiak

dauka eta zeri

itxaroten ari da!

Autopista eta autobide

berriak egin nahi

dituztela baina

daudenekin zer?”

Beno, beno, esan didate zerbait idazteko. Pentsatzen hasi eta gaia ez datorkit berehala. Hau da problemie! Domeka da, oraintxe bertan autobus batek istripua izan duela entzun dut, hainbat hildako, asko izan daitezkeenak, gainera. Albisteak hunkitu egin nau, eta nire burua lanean hasi da, Atxabaltako jubilatua gaur bertan irten dira Asturias aldera, ez dira eurak izango! Azkenean esan dute Zaragoza aldeko istripukoak Madrilgo jubilatua zirela, eta txarto badago ere, apurtxo bat poztu naiz, ez zirelako gureak. Egoismoa izango da, pertsona txarra izango naiz, ez dakit baina horixe pentsatu dut barrenbarrenetik. Istripuari bueltak ematen jarraitu dut, izan ere ikaragarria da azken boladan entzuten diren autobus istripuak. Zergatik izango da? Tramankulu eskasagoak egiten dituztelako ez dut uste, goi mailako teknologia darabilte behin eta berriro entzun dugu, bestela Irizarkoei galdetu. Beharbada gero eta autobus bidaia gehiago egiten direlako izango da. Kasu honetan eguraldiak izan duela eragina diote eta baita gidariak ere, sinesten dut. Beste kasu batzuetan errepideei botatzen diete errua, eta istripu asko autopistan izaten dira. Ez dira bada, autopistak egin behar toki guztietan garraioa azkartu eta komunikazioa

hobetzeko, Europeoagoak bihurtzeko, alegia. Bai, autopista garestiak egiten dira, eta ingurugiroari kasu egin barik, beste batzuk egiteko proiektuak badaude. Baina istripu kopurua ez da gehiegi murriztu!

Ni ados nago edozein ibilgailurekin eroso ibiltzeko azpiegitura onak beharrezkoak direla, baina kontuz egiten denarekin eta esaten denarekin. Guri egin ziguten bariantea, nire etxe osteko menditxo erditik apurtuz, orain ortuak eta sagarrondoak ikusi beharrean kotxeak ikusi behar ditut, nahi eta nahiez. Hoberako zen, agian bai, baina egin zutenen. Izan ere, gaur egun ez dakit nola ez dauden istripu gehiago bariante zoragarri horretan. Lotsagarria da dauden zuloak eta batxeak. Hori konpontzeko ardura Foru Aldundiak dauka eta zeri itxaroten ari da! Autopista eta autobide berriak egin nahi dituztela baina daudenekin zer? Lehenengo ditugunak konpondu ganoraz, eta gero etorriko dira gerokoak etorri behar badira. Ez ahal duzue uste!

Ea bada, norbaitek kasu egiten didan, eta zuek kasu egin eta ondo pasatu San Migelak. Nik, behintzat, ondo pasatzeko ahaleginak egin behar ditut eta!

Itxaro Zubillaga

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
ARETXABAETA

Bereziki: *Harategia  
Urdaitegia  
Fruitategia*

**IMANOL  
JANARI DENDA**

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

**Etxabe  
harategia**

Durana 4  
☎ 943 79 16 61

BITXITEGIA

**MIREN & ZURINE  
BITXIEN DISEINUA**

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 943 77 13 57



# Mundukide, 3. munduari laguntzeko sortu berri den fundazioa

Mundukide legeztatu berri den fundazioa dugu. Bere helburua, Jose Mari Sarasuak, bertako kideak azaldu bezala, enpresek eta lan munduak orokorrean 3. munduarekin konpromezua hartzea da eta dagoeneko urtea daramate zeregin horretan.

Jorrotutako bidean, inguruko kooperatibekin har-tuemanak izan dituzte eta hauen prestutasuna oso egokia izan dela azaldu du Sarasuak. Horrez gain, Mundukideren lan ildoak zein izango den azaldu digu eta aurrera begira fundazioak dituen asmoak.

Mundukide oraintxu, irailean legeztatu den fundazioa da, nahiz eta lanean urtea daraman. Deba Garaian dauden gobernuz kanpoko sei erakundek -Aretxabaletako Hiruatx barne- bultzatu dute bere sorrera eta helburu eta lan esparru zehatzak ditu: "enpresek eta lan munduak orokorrean 3. munduarekin konpromesua eta nolabaiteko kontzientzia hartzea", Jose Mari Sarasuak Mundukideko kideak azaldu be-zala.

Mundukideren osaketari dago-kionez, bultzatzailea Deba Garaiko sei GKEak izan badira ere, eta Mundukiden zein GKEren bateko kideetakoren batek bietan partehar-tu, aparteko taldeak dira. Munduki-de, bertako fondoetan lagundu edo-ta finantziatzen duten kideek osa-tzen dute hein handi batean; hala nola, enpresek eta per-sona indibidualek. Ho-rrez gain, eta fundazio bat den neurrian, patro-nato elkarte bat du eta honek trazatzen du Mundukideren lan egi-teko era, aurrekontuak eta abar. Ondoren, fun-dazioko lan taldeak, pa-tronatuak markatutako lan arloak aurrera eramango ditu.

## Zergatik sortu da Mundukide?

Pentsamendu edo errealitate jakin bat oinarri duela sortu da Mundukide Fundazioa Jose Mari Sara-suak azaldu bezala: "Europaren progresoa ez dator soilik europar-rok egindako lanetik, 3. munduak egin duenetik eta oraindik egiten



Marrupa distrituko Ruisse herriko umeak. Atzean ikusten den etxola eskola da

## Mundukideren helburua, enpresek eta lan munduak orokorrean 3. munduarekin konpromezua hartzea da

duenetik ere bai. Neurri handi batean, indarrean-dagoen sistema ekonomikoak abantaila geuri ematen digu; sistema honek inposatzen ditu prezioak eta hiruga-rreren munduko herrial-deek ez dute indarrrik konpetentzi baten bar-rruan prezio horiekin aurrera egiteko. Orain 500 urtetik hona, lehe-nengo konkistetatik ha-

sita, izugarritzko tratu txarra jasan dute herrialde horiek, demasako esplotazioak egin ditugu bertan. Eta gaur egun ere esplotazio horrek jarraitu egiten du era legal eta fi-nagoan, baina modu bortitzagoan akaso. Honekin guztiarekin, indar eta botere ekonomikoak gure ar-tean daudela kontuan izanda, gure eskuetan dago nolabait herri horien etorkizuna, eta lagundu egin behar

diegu, beraiekin zordun baikaude."

Pentsamendu honetatik hasita, Mundukidek enpresa munduan sar-tu nahi izan du; izan ere, lan mun-dua, kapital mundua eta enpresario mundua herrialde behartsuenera au-zian inplikatzan ez badira, bai la-guntza zuzena eskainiz baita egoe-raz kontzientziatuz ere ez delako Mundukideren ustetan aurrerapau-sorik emango.

## Mundukideren lan ildoak

Arestian aipatutako guztia kon-tuan izanda, hiru arlo hartu ditu fundazio sortu berriak lanerako: le-henengoa garapen proiektua da, baina garapen proiektu dispertsoa izan beharrean, hau da, eskolak eraiki, ubideak egin... azken batean gaur egunean 3. munduko lurralde-ei eskaintzen zaien laguntzeko era jarraitu beharrean, gutxienez 60 mi-la biztanleko zonaldeak hartu eta



garapen guztietan oinarritzkoak diren lau elementuak, elikadura, ur potabilea, osasuna eta heziketa garatu.

Bigarren arloa 3. munduko lurraldeetako inizatiba enpresarial komunitarioetan oinarritzen da; inizatiba hauei enpresa moduan garatzeko laguntza eskaintzean hain zuzen ere. Ez, baina, elkarteak nola egin behar dituzten esanez, asesoramentu mailan soilik.

Mundukidek markatutako hirugarren lan ildoak esperientzien elkartrukaketan datza, hau da, 3. munduko esperientzia komunitarioak geurera ekarri bertatik ikasteko eta geureak eurei erakustean.

Hiru lan ildo hauek ez dira normalean GKEek jarraitu izan dituztenak, izan ere, ez dute kapazitateirik izaten honelako garapen zabalak jorrazteko Sarasuaren hitzetan. Ho-



*Gereza, Maputotik 100 kilometrora dagoen zonaldea. Zorroetan, arrain lehortua dago. Lehortu ostean urte osorako probisioak dituzte*

tzeko orduan, borondate ona duten talde eta elkarte anitz dago, baina efikazia falta handia ere bai.

### **Kooperazioa egiteko era egokia**

Ildo beretik, kooperazioa egite-

herrialde hauetara joan, proiektua amaitu eta kooperanteek alde egiten dute. Alde egitean, baina, bertako herritarrak formatu ez badira, proiektuak mesede gutxi egingo die aurrera begira, ez dutelako moldatzen jakingo. Aldiz, proiektua aurrera eramateko laguntza eskaintzen den herrialdeko biztanleak buru jarriz gero, bertako liderrak bultzatuz gero, kooperanteak lasai asko egin dezake alde proiektuak aurrera jarraituko baitu.

Honekin guztiarekin, nahiz eta polikiago joan, natiboen atzetik joan beharra dugula irizten dio Mundukidek, eurak formatuz eta jaun eta jabe jarriz egindako garapenean.

Honela, eta urte amaiera arte erabakia hartuko ez den arren, Mundukideren lehenengo lan ildoak den zonaldekako garapena Mozambiken eramango dute aurrera. Jose mari Sarasuak, fundazioko kideak, egin du dagoeneko bidaia bat aipatu Afrikako herrialdera hango baldintzak aztertu eta beraien proiektua gauzatzeko aproposa izan daitekeen ikertzeko.

Bigarren lan ildoari dagokionez, hau da, 3. munduko inizatiba enpresarial komunitarioei dagokionez, hau ere jorrazten ari dira baina Amerika Hegoaldean. bataz ere, Afrikan ez baitago honelakorik. Mexikoko Chiapas zonaldeko eskabide bat aztertzen ari dira; artisauak diren emakume talde baten kooperatibatik jaso dute eskaria, eta baita



*Bi mutiko artoa xehetzen*

rez gain, orain artean ez da 3. munduko garapenen proiektuan enpresa efikaziarik ezartzeko lanik egin enpresa mundutik bertatik. Hori bai, eta puntu honetan oso zorrotza da Mundukide, enpresetan aurrera egiteko efikazia ezarri baina geure enpresa filosofia inposatu gabe.

Efikaziari dagokionez, hitz klabea da Mundukideren barruan. Izan ere, Jose Mari Sarasuak aipatu bezala, 3. munduko herrialdeei lagun-

ko orduan, buruz, gogoz eta beti solidaritzapena oinarri izanda egin behar dela esan du. Honekin lotuta, Mundukidek argi duen aspektua honakoa da: kooperazioa egiteko garaian, 3. munduko herrialde askotako biztanleak formakuntzarik gabekoak izatean, bertara joan eta proiektua egiten

hastean, norbera proiektuaren buru izateko tentazioa egoten dela, eta hau ez zaio kooperazioa egiteko modu egokia iruditzen. Izan ere,

### **Enpresa efikazia ezarri nahi du Mundukidek, ez, baina, geure enpresa filosofia**



Colombiatik ere.

Mundukideren helburua eta lan esparrua enpresak eta lan munduak orokorrean 3. munduarekiko arazoz kontzientzia hartzea izanik, laguntza eske zein enpresetara jo behar zuten aztertzean argi zeukaten kooperatiba taldetik hasi behar zutela. Honela, eta orain beste enpresa mota batzuetara jotzen hasi badira ere, bai MCC baita beste kooperatiba batzuetatik ere oso erantzun ona jaso dutela esan du Sarasuak.



## Moanbike izango ei da Mundukideren garapen proiektuko gunea

Urte hasieratik ari dira Mundukideko kideak lanean, eta urte amaiera aldera arte erabakia hartuko ez bada ere, ia seguru da Moanbiken ekingo diotela euren helburua den garapen komarkalari. Lagunduko zuten herrialdea aukeratzeko orduan, Afrikan kokatua izan behar zuela argi zuten bi arrazoiengatik batez ere: kontinente txiroena izateaz gain gainbehera doalako batetik, eta bestetik Afrikarekin zorretan gaudelako europarrok, gehien esplotatu dugun lurraldea baita.

Abiapuntua hori izanik eta Afrika oso handia, toki konkretua aukeratzeko orduan honako baldintzak bete beharko lituzke aipatu zonaldeak: gerran ez dagoen lurraldea izatea edo izateko arriskurik ez duena. Herri paketsua izatea eta lan egiteko gogoia erakusten duena. Honekin guztiarekin, Moanbike nahikoa begiz jota zuten, eta Jose Mari Sarasuak pasa den ekainean bertara hamabost eguneko bidaia bat egin zuen hango baldintzak aztertzeko asmoz.

Moanbiken bi zonalde bisitatu zituen Sarasuak, bata iparraldean, hegoaldean bestea. Azkenik, iparraldean dagoen Niassa izeneko lurraldea egokiagoa iruditu zitzaion, herri serioa, konprometitu, elkartua eta Moanbike osoan baztertuena antzeman zuelako.

Inpresio hauek guztiak, Niassako herritarrek aukeratutako ordezkariekin batzartu ostean jaso ditu Sarasuak. Mila biztanleko ordezkari bat dute eta ordezkari hauen hitz egiteko eta entzuteko erarekin garapen proiekturako herri aproposa zela ulertu zuen Sarasuak. Berak aitortutakoaren arabera, oso herri duina da niassarra eta ikasteko gogo handia duena gainera. Azken

adierazten dute. Kontuan izan behar da, 300 urtez Portugalen menpe bizi ondoren, zakua bizkarrean eramaten baino ez dutela ikasi, ez dute inoiz inizatibarik izan eta beraien ezjakintasunaz jabetzen dira.

Honekin guztiarekin, hau izan daiteke Mundukidek garapenerako proiektu erraldoi hau gauzatzeko aukeratutako duen zonaldea.



*Maua distritoko herrialde bat. Bertan emakume bat seme-alabekin.*

batean hori izan zen Sarasuari inpresiorik handiena eragin ziona bertako egonaldian: "ordezkariei euren herriaren beharrik handiena zein den galdetu nienean, ikastea zela erantzun zidaten, eta zerbait eskatzekotan irakastea eskatuko liguketela. Erantzun honekin, nor diren eta non dauden badakitela

Dagoeneko jaso dute garapenerako aurreproiektua Niassatik. Bertan granja-eskola bat aurrikusten da beste gauza batzuen artean, eta 300 hektareako lagapena eginga dago granja-eskola kokatzeko asmoz.



## Kiroletxeko rokodromoa martxan izango da datorren astean


Kiroletxeko rokodromoari azken ikutuak falta zaizkio bukatuta egoteko. Aste honetan 300 presa jarri eta plataforma margotzea espero da eta horrela datorren astean erabiltzeko prest egongo da. Azken lantxo hauek Gasteizko "Horma rocodromos" enpresak egingo ditu, rokodromoa jartzeaz eta hornitzeaz arduratu den lantegiak.

### Rokodromo zabala

Gaur egun rokodromo altuen orde zabalak eta altuera txikiagokoak jartzea dago modan.

Horrela lehengo rokodromoa ez bezala oraingo hau zabala eta altuera txikikoa izango da. Antza denez, horrelako hormek joko gehiago eskaintzen diote eskalataileari eta era berean bakarrik aritzeko ere aproposagoak ei dira, ez baitu laguntza beharrik eskatzen.

Horma berriak 9 metroko zabalera eta 3,5 metroko altuera du. Materialari dagokinez, fibrazkoa da eta azalera poliesterezkoa. Guzti honetarako 1.400.000 ptako aurrekontua behar izan du Udalak.



*Aste honetan presak jarri ondoren, datorren astean erabiltzeko gertu egongo da kiroletxeko rokodromo berria*

## Txirrindulari lasterketa San Migeletan

Datorren domekan XVIII. San Migel txirrindulari lasterketa izango dugu herrian. Karrera goizeko 10,30etan hasiko da eta txirrindulariek 76 kilometroko ibilbidea izango dute aurrez-aurre, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Arrasate bitartean egingo dena. Bertan Epele-Sara hiru alditan igo beharko dute jubenil mailako txirrindulariek.

## Fran Migel Groseko Openean irabazle

Orain bi aste egin zen IX. Groseko Xake Openean irabazle izan genuen Fran Miguel. Zortzi egun luzetako joko gogorraren ondoren, Franek, Iñigo Argandoñarekin, jubenil mailako Euskadiko txapelkunarekin, berdindu eta gero, txapela bereganatu zuen. Txapelketa honez gain, Franek baditu beste erronka batzuk datorren astebukaerari begira. Alde batetik, zapatuan Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak Mutrikun antolatu duen xake txapelketan izango da, Aitor Alcaide eta Andoni bere anaiarekin batera. Bestetik, domekan Urnietan jokatu den I xake Openean arituko dira Aitor Alcaidek eta Fran Migel.


**BEIRALAN**



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiaik

**KRISTALDEGIA** Herriko plaza, 8 behea  
☎ 943 79 81 78 ARETXABALETA

**Argitalpen honen edizioko laguntzaile:**



**gizarte-ekintza**



**Ezkerutu**  
TABERNA

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 943 79 92 01

*Okindegia - Gozotegia*

**Aretxabaleta**  
Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19  
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81  
Aretxabaleta  
Bertako okina



# Josu Izagirre

## Iron manera iritsi nahi duen triatleta

Aurten inguruko duathloi eta triathloi gehientsuenetan hartu du parte Josu Izagirrek. Gainera lehen aldiz distantzia luzeko Zarauzko triathloia egin du eta horren ondoren, Donibane Lohitzunekoari ez zion hutsik egin.

Dagoeneko udako denboraldia ia bukatuta, Josuk, neguko triathloietan amesten du. Horrez guztiaz gain triatleta honek, baditu buruan beste proba gogorra-  
goak ere.

• **Gorputza horrenbeste astindu ondoren, esaiguzu, nola doa aurtengo denboraldia?**

Ba... uste baino hobeto. Nire asmoa karrera luzeak egitea zen eta Zarauzkoa egin ondoren, neure burua ondo ikusi nuen eta Donibane Lohitzuneko egitera animatu nintzen. Horrez gain inguruko beste duathloi eta triathloietan ere hartu dut parte. Denboraldiko azken triathloia, berriz, datorren zapatuan, San Migel egunez, Zumaian izango dugu.

• **Eta proba guzti horietatik zein izan da gogorrena?**

Donibanekoa, 4 km igeri, 126 km bizikletan eta 30 km korrika. Nahiko ondo bukatu nuen eta orain beste maila batean aritzeko prest ikusten dut neure burua.

• **Zer nolako preparazioa eskatzen du modalitate honek?**

Karrera luzea edo motza izan entrenamendua desberdina da. Karrera motzetarako abiadura landu beharra dago eta kasu hauetan entrenamenduak azkarrak izaten dira. Honek ia eguneroko entrenamendua eskatzen du. Batzuetan, gainera, korrika eta bizikleta egun berean egin behar izaten dira, gorputza ohitzen joan dadin. Maiatza aldera fondoa lantzen



Josu Izagirre Donostiako triathloian uretatik irteten

“Iron man proba egin nahiko nuke, datorren urtean agian”

hasten gara distantzia luzeagoko probetarako gertatzeko eta igerian sakonago egiten da. Behin forma hartu ondoren, karrerek forman mantendu arazten dute.

• **Eta indarrak nola dosifikatzen dituzu?**

Irten aurretik planifikatu egin behar duzu noiz, zenbat eta zer jan behar duzun. Norberak eramaten du jan beharrekoa, baina korrika zoazela esaterako, oso jateko gutxi eraman daiteke aldean. Oso janari energetikoak izaten dira, azukre asko dutenak.

• **Udako triathloiak pasa ondoren, zein da hurrengo helburua?**

Neguko triathloiak gustora eza-  
gutuko nituzke. Mota honetako bost proba egiten dira urtarrila eta otsaila

bitartean. Fondoko eskia, bizikleta eta korrika batzen ditu. Gero udaberri aldera duathloi eta distantzia txikiko triathloiak alde batera utzita, distantzia luzeko probetarako entrenatu nahi dut. Zarautzekoan eta beste pare batean parte hartu eta abuztu aldera ondo gertatuta egonez gero, Suitzara Iron man-a egitera joaten nahiko nuke.

• **Zeintzuk dira Iron manaren ezaugarriak?**

Iron mana oso proba gogorra da, 3,8 km igerian, 180 km bizikletan eta maratonia. Oso ondo gertatuta egotea eskatzen du. Modalitate hau Hawaien sortu zen. Honetatik proba bigunagoak sortu ziren triathloiak eta duathloiak.

• **Eta triathloi talderik badago bailaran?**

Bai, ni adibidez Arrasate triathloi taldean nago. Orain zazpi bat urte sortu zen eta ni orain hiru urtetatik nago bertan. Nirekin batera beste hiru atxabaltar ere badira partaide: Oier Etxebarria, Iñigo Roldan eta Xabier Arenaza. Guztira hamazazpi mutil gara, neskarik ez da oraindik taldean sartzerantz animatu.



# Eta nola egiten da taloa?

Sei urte daramatzate Tril emakume taldekoek San Migeletan taloak egiten. Larunbatean plazan postua jarri eta egun osoan txandakatuz taloak egin eta egin aritzen dira: goizeko 9:00ak aldera postua prestatzen hasten dira, 10:00-etan taloa egiteko orua egiten hasi, eta 11:00ak aldera prest izaten dira lehenengo taloak saltzen hasteko.

Hau guztia egiteko berrogei lagun inguru aritzen dira, emakumeak ia bere osotasunean. Artouruna Orandaingo Garai-alde baserretik ekarri izan dute normalean, eta aurten ere handik ekarriko dute 50 kg inguru.

Aukera izaten dugunetan, eta ez da askotan izaten, gehienok hurbiltzen gara taloak saltzen dituzten postuetara, eta ardo edota sagardoa-ekin lagunduz gustora asko jaten dugu. Hala ere, gutako zenbatek daki taloa egiten, era itxuroso batean bederen? Tril emakume taldeko hainbat kidek, bai, eta honela azaldu digute talo on bat egiteko sekre-



Tril emakume taldeko ia 40 lagun inguru biltzen dira San Migeletan taloak egiten. Aurten 50 kilo urun erabiliko dute.

tua, nahiz eta beste jaki batzuren prestaketan gertatzen den bezala, aldaketa txikiren bat izaten den eta bakoitzak bere berezitasunak ere bai: artouruna eromahaian bota behar da eta erdian zulo bat egin behar zaio, ondoren botako den urak

riurun bota dakioko. Nahasketa honen, apurtzea zailteaz gain, zapora hobia ematen dio.

Honen guztiaren ostean, taloa txapa gainean jartzea baino ez da geratzen; buelta pare bat eman ez gehiegi belzteko eta barrura.

ihesik ez egiteko.

Ura botatzeko orduan, komenigarria da oso beroa botatzea, honela ore finagoa geratzen baita eta taloak apurtzeko arrisku gutxiago duelako. Behin ura eta gatza botata, artourunarekin batera ondo nahastu behar da guztia dena batu eta ore lortu artean. Ore esku-ekin zenbat eta gehiago landu, orduan eta hobia aterako zaigu taloa. Ore prest dugunean, zatitxoak, bolatxoak hartuko ditugu eta bakoitzetik talo bana aterako dugu.

Ore bolatxoak zanpatu eta zapal-zapal egitea komeni da, ahalik eta mehe- en gainera. Honela, baina, oso hauskorra da taloa. Hau ekiditeko, ore egiteko orduan, bi eskukada ga-

**AZKARATE**  
**AROSZTEGIA**

Tailerra: Mahasterreka, 18  
BERGARA  
943 76 47 19

ARETXABALETA  
943 77 01 24

**T**  
**X**  
**i**  
**L**  
**A**  
**R**  
**R**  
**A**

**ELIKADURA**  
**BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 943 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 943 79 44 28  
ARETXABALETA

**“ A R I N S A ”**

**Aretxabaletako industrialdea S.A.**

Basabe poligonoa “EO-10”  
Tfnoa: 943 79 62 80  
ARETXABALETA

**Haizea taberna**

**Gustoko giroa**

Mitarte, z/g •  
ARETXABALETA  
Tfnoa: 943 79 85 57





## Kurtzebarrin jarritako lehenengo buzoia

**P**

asa den igandean Kurtzebarri Eguna ospatu zen. Urte asko dira herritar batzuei bertan gurutzea jarri behar zela otu zitzaieela.

1928. urteko irailaren 11n jarri zen gurutzea. Beroan altxatu zen gurutzea, 1133 metroko altueran, eta ez gailurrik gorenean, Elorretako Haitzean, azken honetan jarritz gero ez baitzen herritik horren ondo ikusiko eta.

Kurtzebarri Eguna ospatzen, 1928 urtean bertan hasi zen, baina hogeitabost urtera egin zen ospakizunik handiena, zilarrezko ezteietan.

Honekin guztiarekin, buzoia izatea baino ez zitzaion falta Kurtzebarriri. Honela, bada, 1942. urteko maiatzaren 3an, Eibarko Kirol Elkarteak Kurtzebarrin lehenengo buzoia jarri zuen.

Goiko argazkian, 1942. urtean hainbat mendizale buzoia jartzen ari direneko unean ikus daiteke. Mendigoizale hauek ez dira Aretxabaletakoak, Eibar, Elgoibar eta Bergarakoak baizik, eta Eibarko Kirol Elkarteak antolatutako mendi buelta baterako elkartu ziren guztiak.



Argazkia eta informazioa: Julen Zabaleta



Lurrindegia  
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

GARBITU S.  
COOP.  
*Garbiketa*  
*orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

Mobiliario  
ARENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

ITURGINTZA

**J.J**

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA  
KALEFAZIOA

Tfnoa: 943 79 07 34  
943 79 31 87



LANA

- ◆ **Zerbitzari** euskalduna behar da. Tfnoa: 945 44 50 86
- ◆ Urrezko zintzilikarioa galdu da. Inork aurkituko balu 943 77 17 42 telefonora deitu.
- ◆ **Emakume** euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 943 79 24 01, gauez.
- ◆ **Emakume** bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. Tfnoa: 943 79 37 03 (19:00etatik aurrera).

Lan deialdi publikoak

- ◆ Santurtziko Udalak, **informatikako teknikari laguntzailea, gestio teknikaria eta udaltzaina** behar ditu. Aurkezteko epea: 99/10/3.
- ◆ Osasunbideak **erreumatologian espezialista, patologiako espezialista eta psikiatra** behar ditu. Aurkezteko epea: 99/10/6

Langaiko lan eskaintza

- ◆ Deba Garaian dagoen enpresa batek **kamioidar** behar du. Erref: 23358/1
- ◆ Durango inguruan dagoen enpresa batek **sukaldari laguntzailea** behar du. Erref: 23245/2
- ◆ Arabako lautadan dagoen enpresa batek **3 aseguru saltzaile** behar ditu. Erref: 23644/1
- ◆ Bilboko eskumaldean dagoen enpresa batek **informatika lizentziaduna** behar du. Erref: 23421/4



**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 77 18 54 erantzungailura. Dohainik da.**

DENETIK

- ◆ Garajea salgai Murubide auzoan, lehenengo solairuan. Tfnoa: 943 79 32 73.
- ◆ Gela bat hartu nahi dut alokairuan Aretxabaletan. Tfnoa: 670 05 47 63.
- ◆ Volkswagen Comby furgoneta salgai. Guztiz ekipatuta. Tfnoa: 943 71 49 15, 21:00etatik aurrera.
- ◆ Datorren ikasturtean arratsaldez alemaneko klaseak emateko irakaslea behar da. Tfnoa: 943 79 00 69, 15:00etatik 18:00etara
- ◆ Leioan pisua osatzeko 2 pertsona behar dira. Tfnoa: 943 79 30 61, Nerea.
- ◆ Txakurra eramateko remolke berri berria salgai. Deitu 943 77 05 75 telefonora.
- ◆ Pisua hartuko nuke alokairuan Aretxabaletan. Tfnoa: 943 78 14 57 edo 945 25 97 84.
- ◆ Kanpindenda kanadiensea eta kotxe gainean eramateko parrila salgai. Tfnoa: 943 79 23 69

- ◆ Flauta eta bibolinjolea behar dira talde batean jotzeko. Tfnoa: 943 79 95 76 (Esteban).
- ◆ Kawasaki GPC 400 salgai, egoera onean. Tfnoak: 943 73 18 72/73 12 82.
- ◆ Pastor Aleman txakurkumeak salgai. Pedigiarerkin. Tfnoa: 943 85 32 44 edota 696057346.
- ◆ Gordetzeko lekua falta dela eta, "Chaman" piragua salgai. "Compartimento estanco"arekin eta txaleko berezia, pala, "cubrebañera" eta kotxean eramateko barrak prezio barruan. Prezioa 50.000 pta. Interesatuak deitu 943 77 01 74 telefonora.
- ◆ Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Tfnoa: 943 79 78 35.

ETXEBIZITZA

- ◆ Lokal komertziala salgai edo alokagai dago Aretxabaletan, toki zentriko eta eguzkitsuan. Orain artean ileapaindegi eta edertze areto moduan funtzionatu du. Tfnoa: 943 77 12 70.
- ◆ Baserri zahar bat erosiko nuke berrizteko asmoz Deba Bailaran. Tfnoa: 649 67 19 14.
- ◆ 57 m<sup>2</sup>ko garajea salgai Errekabarren kalean. Tfnoa: 943 79 74 73.
- ◆ Etxe bat erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 649 16 86 69.
- ◆ Etxea erosi nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 61 68.

**ARETXABALETA**  
**ITURGINTZA**

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA

**FELIX PAGALDAY**  
**SUNZUE S.A.**  
Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak  
Mitarte, 7 behea  
☎ 943 77 00 33/79 42 56

**Maritxu**  
**Mertzeria**

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 943 79 23 53  
ARETXABALETA

**MAITE**  
**ileapaindegia**

Sarasate, ☎ 943 79 59 05  
ARETXABALETA



# San Migel gogoz



*M. J. Arretxak*

Albarka zahar hauek oinetan sartzeko makina bat lan. Txapela berriz hamabost urte neuzkanekoa eta maoizko prakak ni bezalako beste hiru lagunentzako modukoak. Ispiluan begiratu eta momentu batez Zeledonon antza hartu diot neure buruari. Gerriko grisak hain ondo zaindutako sabela babesten didan bitartean... norbait atejoka ari da. Kalera irten aurretik azkenengo begirada ispiluan...

Baina San Migelekin hasi aurretik, azken hamabostaldi honetako kontuen berri emateko ordua iritsi dela uste dut. **Kurtzebarri egunak** aurten ere jende dexente bildu zuen tontorrean. Salda beroa, txanpaina... goraino igo zirenek barrena bero-bero eginda jarraitu zuten eguna. Tontorreko meza Jesus **Madinabeitia** apaiz marianistak eman zuen. Egun freskoa izan zuten arren, goiz ederra igaro zuten bertara hurbildu

zirenek.

**Basotxoko jubilatua** ere ez dira atzean gelditu. Izan ere, gauden aste honetan, astebeterako joan baitira Asturiasera. Hauena bai plana: astebete Asturiasen, San Migeletarako herrira buelta...

Bestalde, atxabaltako xake jokalaria baten garaipenaren berri eman beharrean nago. Izan ere, **Fran Miguelek** Groseko IX. openeko txapela eskuratu baitzuen. Mutil honek harrিতa nauka, kasik hamabostero bere garaipenak albiste bihurtzen baitituzterro hauetan.

Bestalde pasa den zapatuan topaketa berezia burutu zuten Arabako Heredia herrian. Bertan, **Beltran de Heredia** abizenaz berrehun eta laurogei lagun bildu ziren. Tartean Atxabaltako hogeitun lagun ere bertaraino hurbildu zirelarik.

Asteburua hortxe bertan daukagu. Sagardorik ez da falta izango. Talo eta txistorra ogitartekoak nahi beste izango ditugu. Dantza egiteko aukera ere izango da (nahiz eta batzuk oraindik dantzatzeko bikote bila dabilzan). Egun batez kaletarrok baserritar jantzita aterako gara kalera. Nik neuk gertu dauzkat arropak. San Migeletako zapia lepotik bueltan jarri eta dantzan hastea falta zait. Baina horretarako bikote faltan nabil. Atxabaltan norbait balego nirekin dantzatzeko prest... Helbide elektronikoa emango dizuet. Norbait interesatuta egonez gero utzi dezala mezua ahal den azkarren: [maretx@dantzaldi.com](mailto:maretx@dantzaldi.com)

## Liburutegiko txokoa



### Txano Gorri, Berde, Hori, Urdin eta Zuri

Testua eta marrazkiak, Bruno Munari eta Enrica Agostinelli  
Itzulpena, Igone Etxebarria  
Anaya Haritza, 1998 (Liburu zopa; 7)

Txano Gorritxoren ipuina oso ezaguna da, ez hainbeste Txano Berde, Hori, Urdin eta Zurirenak. Grim anaien Txanogorritxoren bertsioan otsoak Txano Gorritxo jaten du, baina besteetan ezingo du jan laguntza izango duelako. Bertsio guztietan daude neskak, otsoa, ama eta amona; dena dela koloreak bezala lekuak ere aldatuko dira eta Txano Berdetxo basoan, Txano Horitxo hirian, Txano Urdintxo itsasoan eta Txano Zuritxo elurretan aurkituko dituzu.

Koloreak garrantzi handia du hemen eta marrazkiek ere eragin handia dute istorioaren jarraipenean.

Edozein adinekin irakurtzeko moduko liburua duzue hau eta 6 urtetik aurrera irakurri daitekeena.

Joseba Lopez de Armentia



IRAILA

24

egukotxa

**TIRRI-TARRA  
FANFARREA**

Gaueko 23:00etan San Migeletako jaien barruan **Tirri-Tarra** fanfarreak emanaldia eskainiko du Herriko plazan. 28 partaidez osatutako talde honek *Tirritarra Shou* bere azken lana eskainiko du.

25

zapatua

**ARTISAU ETA PRODUKTU  
BIOLOGIKOEN FERIA**

Goizeko 11:00etatik 20:00ak bitartean herriko plazan.

**BERTSO SAIOA**

San Migel jaien barruan, eta Loramendi Euskara Elkarteak antolatuta, **Mañukorta eta Iturriaga** bertsolariek saioa eskainiko dute eguerdiko 13:00etatik 14:00etara bitartean Durana kalean.

**IX. BOLO TXAPELKETA  
ETA PILOTA PARTIDUAK**  
Gaueko 22:30ean, San Migel Bolo Txapelketa egingo da. 23:00etan, Iturrigorri frontoian, afizionatu mailako pilota partiduak.

26

domeka

**AIZKOLARI ETA  
HARRIJASOTZAILEAK**

Eguerdiko 13:00etan, Itziar Goenaga, Kristina Saralegi, Goenatxo, Dani Vicente eta Mikel Saralegik herri kirolen demostrazioa egingo dute. Horrez gain, orain gutxi kotxe istripuan hildako **Nartxi Saralegiri omenaldia** egingo zaio.



URRIA

2

zapatua

**JUBILATUEN EGUNA**

Urtero gisa, Jubilatuen Eguna ospatzeko, lehenik meza izango da, ostean salda eskainiko da Basotxon, eta ondoren jubilatuek bazkaria eta dantzaldia izango dituzte. Bazkarirako txartelak Basotxon bertan eros ditezke astelehenetik ostiralera 11:30etik 12:30era.

3

domeka

**KILOMETROAK 99**

Gipuzkoako ikastolen aldeko eguna, aurten Errenderian ospatuko da. Loramendik autobus txartelak San Migel jaiak igarotakoan jarriko ditu salgai.

**ARQUERO**  
**CONSTRULAN S.L.**

**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**

Tfnoa: 943 79 01 51  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
*Lyonel Arquero*

Dekorazioa:  
*Soraya Arquero*

**Yoga eta psikoterapia**  
(Bakarka zein taldean)

**ENCARNA MENDEZ**

Tfnoa.: 943 79 88 53  
Mobila: 616965795

Lausitta, 11  
20550 ARETXABALETA

**Aldi bi**

943 71 20 02

**ITURGINTZA**

**J.J**  
*Jose Jabier Irure*

**URA, GASA ETA  
KALEFAZIOA**

Tfnoa: 943 79 07 34  
943 79 31 87

**CONSUM EROSKI**

*Orain arrandegi  
eta okindegiaz, zatoz!*

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11  
ARETXABALETA



## ikastaroak

**ESKULANAK, EGUR TAILA eta PINTURA**

Udalak urtero gisa, eskulanetako 9 ikastaro, egur tailako 2 eta pinturako beste bi ikastaro antolatu ditu. Eskulanei dagokienez, bainika, richelieu, brodatu ingelesa eta beste hainbat josteko era landuko dira. Egur tailaren kasuan, egur dekorazioa, pintura eta dekorazio marmolina beste batzuren artean eta pinturari dagokionez oleoa landuko da. Ikastaroetako taldeak hamahiru pertsonakoak izango dira. Egunak eta ordutegia taldeen arabera zehaztuko da. Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago. Interesatuak Kultur Etxetik pasa daitezke goizeko 11:00etatik 13:00 bitartean.

**BEGIRALE**

Arrasateko Txatxilipurdi Elkarteak, 18 urtetik gorakoentzako begirale ikastaroa antolatu du. Matrikula epea urriaren 8ra bitartean egongo da irekita. Argibide gehiago 943 79 54 46 eta 943 77 17 39 telefonotan edo Txatxilipurdik Arrasateko Pablo Uranga 4ean duen egoitzan.

**PIRAGUISMO**

Deba Garaiko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak 14 urtetik gorakoentzako eskimotaje eta ur bizietako hastapenerako ikastaroa antolatu du. Ikastaroen prezioa 3.500 pezeta da bazkideentzat eta 4.500 bazkide ez direnentzat. Interesatuak kirol etxean eman dezakete izena.

**BEHARREZKO TELEFONOAK****Aretxabaleta**

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

**Udaltzaingoa**


• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

**Larrialdia**

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdia	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

**Garraioak**

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

**“Argazki zaharrak” berriz abian**

Telebistan datorren martizenean, “Argazki zaharrak” saioari ekingo diote berriz. Saioa uztailean hasi zen eta orain jarraipena izango du. Antzinako argazkiak, Argazki Artxi-bokoak dira eta komentarioak Aitor Antxia Leturiak egingo ditu, artxiboko arduradunetako batek.

“Argazki zaharrak” saioa martizenero izango dugu Atxabalta Telebistan. Horrez gain, orain murgilduta gauden gripearen aurkako kanpainaren berri ere emango zaigu telebistan.

Honekin guztiarekin eta asteburuan San Migelak direla kontuan izanda, jai hauei buruzko saio berezia ikusi ahal izango dugu.

	MARTIZENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokorra Eguraldia
20:20	KIROLAK	AGENDA
20:30		ATXABALTA EZAGUTZEN





Hamazazpi urtekin etorri zen Felix Iglesias Galiziatik Euskal Herrira. Geroztik 27 urte egin ditu Aretxabaletan eta gaur egun gure herria garbi mantentzeko ardura du. San Migeletan besteok ondo pasatzen dugun bitartean, Felixek lan egin beharko du kaleak itxuroso uzteko.

• Noiztik kalegarbitzaile?

Orain zazpi urtetik hona. Hasieran udal-terako langile bezala hasi nintzen. Gero enpresa bat sortu genuen Iza izenez, baina guri kontratua bukatzean, Udalak, beste enpresa bati eman zion postua eta orain enpresa horretan nago arduradun bezala.

• Nongo enpresa da azken hau?

Azpeitiakoa.

• Zenbat langile zaudete herria garbitzeko?

Lau, ni herri guztian zehar aritzen naiz, eta besteek euren zatia daukate.

• Zein da zehazki zuen lana?

Kaleak garbitzeaz gain, zakarrontziak hustu eta hormako kartelak kentzea.

• Zer da garbitzeko zailena?

Lurrean gelditzen diren grasak eta hormetako kartelak kentzea, gehienbat hauteskunde garaian.

• Gogorra da kalegarbitzaile lana?

Ez da gogorra. Sasoirik gogorrena udazkena da, hostoak lurrera erortzen baitira. Bestela lan atsegina da, lagun asko egiten baitituzu. Hori bai, kexatzera ere herritar asko etortzen da, gehienetan arrazoi barik. Hori da amorrurik gehien ematen duena.

• Kalegarbitzaile lana gutxietsia izan da. Aldatu da kontzeptu hori?

Nik uste dut baietz. Lehen kalegarbitzaileak gutxietsiak ziren, orain, berriz, ikasketak dituen jendea ere etortzen da lan eske.

• Zer esango zenieke herritarrei?

Euskal Herri eta ingurune garbi bat izatearen alde kontzientzia har dezatela eta zaborra lurrera bota aurretik ondo pentsatzeko.

• Herritarrok garbiagoak gara lehen baino?

Bai, ni hasi nintzenean jendea askoz ere zikinagoa zen.

• Zein da zaborrik gehien egoten den garaia?

Umeak oporretan daudenean zabor gehiago egoten da kalean eta baita hostoak erortzen direnean ere.

• Zer nolako herria da Aretxabaleta garbitasunari dagokionez?

Bueno, entzun ditudan kritiken arabera hemen inguruko herririk garbientakoa da.

• Asteburuetan ere lan egiten duzue?

Bai, txandaka egiten dugu eta astean egun bat izaten dugu jai.

• Beraz, San Migelak lanean biziko dituzu?

Bai, jai guztiak bizitzen ditut horrela. Gainera San Migelak guretzako jairik gogorrenetakoak dira.

• Jaietako anekdotarik izango duzu?

Jaietan jendeak ez gaitu bakean uzten. Batzuk makina gainera igotzen dira, beste batzuetan erratza ohostu izan digute. Horrez gain, beste mila gauza entzun behar izaten ditugu. Goizeko betan lanean hasita, imajina dezakezue, pazientzia haundia behar da.

KOMIKIA

BALITAKUK (Hikaz berbetan)




Mikel Arroiabe



Ireki ezazu

# GAZTE KONTUA



## Modan dagoelako




Orain, 25.000 pta.rekin Euskadiko Kutxan Gazte Kontu bat irekitzeagatik, **aterkia ERAMATEKO soin-maleta** bat (aterki eta guzti) eskuratuko duzu. Gazte Kontuarekin eskura ditzakezun gainerako gauzez hobe ez hitz egitea, gaur bertan izango baituzu horien berri kontua irekitzen duzunean. A! ia ahaztu zait. Zalantzaren bat baduzu, galdetu 901 200 000 Gazte Telefonoan. Gazte Kontua apartekoa da eta gainera modan dago.



901 200 000

<http://www.cajalaboral.es>

Promozio honek 99-10-11ra arte edo izakinak agortu arte balio du.

  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA


Erantzun  
zuzena



# MECA



Handiak ala txikiak  
**ideia onenak**  
bizirauten dutenak dira



**RENAULT**

## MECA TAILERRAK

Tel.: 943 71 24 72 (Arrasate) • Fax: 943 79 64 11